



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Kasakatxanetik datozenak



**zan zitekeen Asia erdialdeko herrialderen bat. «Casa Ca-
chan», ordea, garai bateko Gas-
teiz inguratzen zuen murraren
ondoan kokaturiko leku baten
izena zen.** Harresiak eskaintzen

zuen babes eta erosotasunetik at zegoen bazter ospela. Toki arrotz bat orduko gasteiztar gehienentzat, txikieneztat batez ere. Bertara ailegatzeko *resbaladero* izenez ezagutzen zuten aldapa igo behar baitzen nahitaez, eta nonbait, ez zen egiteko erraza izango sasoi hartarako. Gaur egun oraindik, hemengo askok “kasakatxan” hitza darabil aparte dagoen paraje bati erreferentzia egin nahi dionean. Kutsu hori gorde digu hitzak. Kostata erdietsi daitekeen norakoa. Gure munduaren amaiera partikularra.

Klik batean nonahi egon gaitezkeen honetan ere, zenbatezinak dira lurrazalean zehar barreiatutako kasakatxanak oraindik. Askotarikoak han bukatzeko arrazoiak. Nor bere testuinguruak bizi baitu. Badaude, beren borondatez, munduaren beste puntan denboraldi bat pasatzeko hegazkin bat hartzen dutenak. Eta badaude beste batzuk, testuinguruak hala behartuta, haien herrialdea utzi eta lu-

rralde arrotz batera bizitzera joan behar izan dutenak. Horieta asko gure bizilagunak dira, izen-abizenak dituzte, nahiz eta haien inguruan ezer gutxi jakin gehienok normalean. Ez bada kazetari edo politikoren bati eurei buruzko zerbaitekin matraka ematen hastea okurrizten zaiolako, oharkabean gurutzatu eta indiferentziaz begiratzen ditugun auzokide horiek baino ez dira guretzat.

Elkarrenganako ezjakintasun horri aurre egiteko ipini zen martxan Bizilagunak izeneko proiektua Araban, duela hiru bat urte. Pare pare bizi arren, sarri askotan elkarri buruz ezer ez dakiten familia zein norbanakoak mahai baten bueltan elkartzen ditu egitasmoak urtean behin. Jatordu bat elkarrekin egitearen aitzakian, hangoek hemengoak eta hemengoek hangoak hobeto ezagutzea da helburua. Geuk ere jarri genuen geure aletxo pasaden larunbatean. Astean behin futboleko aritzeko elkartzen den hamabost laguneko taldea batu ginen afaritarako. Kamerun, Maroko, Mexiko, Ukraina, Sierra Leona, Ginea Konakry, Venezuelak, Sahara, Egipto, Euskal Herria eta beste horrenbeste hizkuntza eta kultura mahai baten bueltan kontu kan-

tari. Munduko selekzio bikaina litzateke, irabaztea borondate kontua baino ez balitz.

Berriki Euskal Kazetariak saria jaso duen Ane Irazabali entzun izan diot behin baino gehiagotan esaten, zein garrantzitsua den albiste bat emate-rakoan gertaeren hurrenkera behar bezala kontatzea eta albistea bere testuinguruan kokatzea. Testuingururik gabe sentimendu hutsean gertatzeko arriskua baitago. Eta horrelakoe-tan, berri horrek sortu digun horrorea edo amorrua baino ez da geratzen hondarrean. Gertaerarik lazgarrienak datuetara murrizten ditugu eta aurpe-girik gabeko zenbaki bihurtzen dira biharamunerako. Ekialde Hurbileko gerretatik ihesi zetozen milioika ho-rien dramari buruz ari zen Irazabal, baina berdina esan dezakegu beste edozein gertaeren inguruan komuni-kabideek hartzen duten jarrerari bu-ruz ere. Pena sentitzeak karitatea ekar lezakeelako atzetik, kasurik onenean. Baina ez du inor bere inguruan gerta-tzen denaz jabetzera eramango. Eta ezjakintasuna oso gauza arriskutsua da, inkisizio hain suelto dabilen ga-raiotan. •